

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

- ACIDEKA, S.A.
- Lantarón industrialdea. 01213 LANTARÓN

1254/1999 Errege Dekretua bete dela adieraztea

ACIDEKA, S.A. enpresaren instalazioak uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuko erregelamenduzko xedapenak beteko ditu. (Errege Dekretu horren bidez, istripu larrietan gai arriskutsuak tarteko direnean sortzen diren arriskuak kontrolatzeko neurriak onesten dira). Araudi honen 9. artikuluko 1. idatz-zatian adierazitakoari jarraiki, enpresak nahitaez aurkeztu beharreko segurtasun-txostena aurkeztu dio eskumena duen agintari.

Enpresaren jarduera

ACIDEKA, S.A. enpresaren instalazioan honako jarduerak garatzen dira:

- Produktu kimikoak hartu, biltegiatu eta ontziratuta egiten dira, batez ere produktu kimiko ez-organikoak: azido klorhidrikoa, azido nitrikoa, azido sulfurikoa, sodio hidroxidoa, ur oxigenatua, kloro likidoa, e.a.
- Honakoak fabrikatzen dira:
 - Produktu kimikoen disoluzioak, adibidez, %25eko sodio hidroxidoa lortzea %50eko sodio hidroxidoa erabiliz.
 - Aluminio-gatzak: aluminio sulfatoa eta aluminio polikloruroa aluminio hidroxidotik.
 - Burdin-gatzak: kloruro ferrikoa kloruro ferroso, txatarra eta klorotik.
 - Baterietarako elektrolitoa %98ko azido sulfurikotik.
 - Akrilamidaren deribatuak: akrilamidatik.
 - Melamina-formol erretxinak.

Istripu larria eragin dezaketen gaiak

Fabrikazio-prozesuan gai jakin batzuk erabiltzen dira, besteak beste, azido klorhidrikoa, azido sulfurikoa, ur oxigenatua eta sodio hidroxidoa. Hala ere, gai horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, instalaziotik kanpo eragiten duten istripuak) kloroa tartean denean bakarrik gerta daitezkeela.

Kloroa gas likidotu toxikoa da, itogarria eta narritagarria, eta instalazio honetan biltegi ezberdinetan gordetzen da.

Istripu larriak eta horien ondorio posibleak

Egoera horren ondorioz, instalaziotik kanpo eragina duten istripu larriak izan daitezke:

- 40 m³-ko kloro-biltegiak pitzatu eta kloroak etengabe ihes egitea
- 1000 kg-ko kloro-zilindroa hautsi eta kloroak ihes egitea.

Istripu horiek hodei toxikoa sor dezakete, eta horrek hainbat ondorio izan ditzake pertsonengan, ondasunetan eta ingurumenean. Kontzentrazio toxikoaren arabera, bi jardun-eremu zehaztu dira: esku hartzeko alderdia (EA) eta alerta-egoerako alderdia (AA). Hona hemen alderdi horiei dagozkien balioak eta ondorioak:

Alderdiak	Kontzentrazio-balioa	Aurreikusitako kalteak		
		Ondasunetan	Pertsonengan	Ingurumena
EA	IPVS	---	Ez dago sintoma larriarik, ez eta ondorio itzulgarrikerik ere (gehienez ere 30 minutuko esposizioa)	---
AA	IPVS %25	---	Ondorio txikiak talde sentikorretan	---

Istripu larria izanez gero biztanleei ohartaraztea eta informazioa ematea

Goian aipatutako istripuren bat eragin lezakeen istripu-egoera badago instalazioan, agintariak arduratuko dira biztanleei ohartarazteaz eta informazioa emateaz. Honako bitarteko hauek erabiliko dira biztanleei ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko jakinarazpenak, megafoniaz. Udaltzaingoak edo Ertzaintzak egingo ditu.
- Gizarte-komunikabideak (telebista eta irratia).

Instalazioan larrialdiren bat bada go biztanleek hartu beharreko neurriak

Instalazioan istripu larriren bat bada, biztanleek ondoren aipatzen diren neurriak hartu beharko dituzte, istripu-egoeraren ezaugarriak, horren bilakaera eta instalazioekiko hurbiltasuna kontuan hartuta:

- Konfinamendua
- Urrutiratzea

Hauek dira konfinatzeko edo urrutiratzeko oinarritzko jarraibideak:

KONFINAMENDURAKO ETA AUTOBABESERAKO JARRAIBIDEAK

- KALEAN BAZAUDE, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN, ETA BILATU BABESLEKUA
- ITXI ATEAK ETA LEIHOAK (AHAL BADA, JAITSI PERTSIANAK) ETA ALDENDU HORIETATIK. BEHARREZKO BADA, JARRI TRAPU BUSTIAK ZIRRIKITUETAN. EZ ERABILI KANPOKO AIREZTAPENENKO APARATURIK.
- EZ EGON ERAIKUNTZEN BEHEALDEETAN (SOTOETAN, GARAJEETAN, e.a.). AHAL BADA, IGO SOLAIRU GORENETARA.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKO BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK

URRUTIRATZEKO ETA BABESLEKUA BILATZEKO JARRAIBIDEAK

BEHARREZKO BADA URRUTIRATZEA ETA BABESLEKUA BILATZEA, NORA ETA NONDIK JOAN BEHAR DEN ADIERAZIKO DA, ZUZENEAN JAKINARAZIZ EDO KOMUNIKABIDEEN BITARTEZ.
ONDOKO JARRAIBIDEAK BETEKO DIRA:

- URRUTIRATZEN ZAREN BITARTEAN, BABESTU ARNASBIDEAK MUSUZAPIAREKIN EDO TRAPUAREKIN, ETA BILATU BABESLEKUA
- JOAN BEHARREKO LEKURA HELTZEN ZARENEAN, BILATU BABESLEKUA LOKAL EDO ERAIKIN BATEN BARRUAN, ETA ITXI LEIHOAK ETA ATEAK.
- EZ ERABILI TELEFONOA, BEHAR-BEHARREZKO BADA BEHINTZAT.
- ENTZUN BERTAKO IRRATIAK, ETA JARRAITU AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN JARRAIBIDEAK ETA GOMENDIOAK

Istripu larria izanez gero instalazioan egin beharrekoa

1254/1999 Errege Dekretuan adierazitako betebeharrei jarraiki, instalazioan istripu larria izanez gero, honako hau egin beharko da:

- Neurri egokiak hartu beharko dira, istripuak ahalik eta ondorio txikienak izan ditzan.
- Kanpoko larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jarri beharko da.

Instalazioan bertan egiten diren esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak Barruko Larrialdietarako Planean jasota daude.

Kanpoko Larrialdietarako Plana

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak Kanpoko Larrialdietarako Plana garatu du ACIDEKA, S.A. enpresaren instalazioan gerta litezkeen istripuetarako. Plan horren bidez, instalaziotik kanpo eraginik izan dezaketen eta, ondorioz, instalazioaren inguruetan eragiten duten egoerei aurre egiteko antolatzeke modua eta beharrezko baliabideak ezartzen dira.

Kanpoko Larrialdietarako Plan honetan, larrialdi-zerbitzuek nola jokatu behar duten adierazi da eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jaso dira.

Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero:

- Web orria: www.euskadi.net/112
- Telefonoa: 945 01 88 83